

## Txakurren txizen kaltea murrizteko

Txakurrak dituzten herritarrak kontzientziatzeko asmoz, 'Guztion kontua da!' kanpaina abiatu dute udalak eta FCC enpresak. Karpa bat jarriko dute herrian zehar abendu hasierara arte / 2

**Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroko kideek hainbat hitzaldi antolatu dituzte azarorako / 4**

**Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolak abenduan bukatutzat emango du bere lana / 10**

**Karabelekoren eta Kool Studioren elkarlanari esker, garaiko jakiak erosteko aukera dute lasarteoriarrek / 5**

**2020ko etenaren ostean, 134 lasarteoriarrek 56. Behobia-Donostia lasterketa lehiatuko dute azaroaren 14an / 11**



## Urtemuga berezia, iristear

JANIRE ARROYO

Ttakun Kultur Elkarteak 30 urte beteko ditu hilaren 16an; ekitaldiak antolatu ditu / 6-7

**Ges**  
aseguruak

Zorionak Ttakun!

*Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia*

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



# Txakurren txizen eragina gutxitu nahi du udalak

'Guztion kontua da!' egitasmoa jarri dute martxan Lasarte-Oriako Udalak eta FCC enpresak, txakurren jabeak kontzientziatzeko. Helburu nagusietako bat da animalia horiek eraikin, farola eta antzekoetan pixa ez egitea. Karpa informatiboa jarriko dute herrian zehar

## Txintxarri

Agustin Valdivia alkateak eta Zerbitzuetako zinegotzi David Mateos-ek xehatu dituzte *Guztion kontua da!* egitasmoaren nondik norakoak. "Oro har, jabeak arduratzen dira maskoten gorotzak jasotzeaz, baina txizaz ez dira kezkatzen", adierazi du Valdiviak. Hori dela eta, txakurrek eraikinetan, faroletan eta antzekoetan pixa egitea galaraztea eta jabeak kontzientziatzeko dira udalaren eta FCCren xede nagusiak: "Uste duguna baino gehiago kaltetzen du gernuak".

Mateosek azaldu du hogen eguneko kanpaina izango dela *Guztion kontua da!*. Batetik,



Ezker-eskuin: Agustin Valdivia eta David Mateos. TXINTXARRI

eskuorri informatiboak banatuko ditu udalak etxez etxe, eta bestetik, karpa informatibo bat jarriko du herriko zenbait gunetan, 10:00etatik 14:00etara.

## Ontzia eta giltzatak

"Arratsalde ere jarri nahi genuen karpa, baina ez da posible izan", adierazi du Mateosek. "Lasarteoriatarrek gonbidatzen ditut gunera gerturatu eta informazioa eskatzera". Jarraibideak entzuteaz gain, herritarrek bi produktu eskatu ahaliko dituzte, txakurren pixen eragina gutxitu dezaten: ura eta ozpina nahasteko bana. Plastikozko botilatxo baten antzekoa da lehenengoa, eta proportzioak adierazita ditu: ontzi erdi ur, eta ontzi erdi ozpin. Giltzatak txikia da, hezur formakoa, eta maskotaren lepokoan jar daiteke. Botoi txiki bat du, eta hori zapalduz gero, argia egiten du. "Egunak gero eta laburragoak dira udazkenean eta neguan; jabeentzat tresna baliagarria izan daiteke uneoro animalia non dagoen jakiteko", azaldu du Zerbitzuetako batzordeburuak.

## Karpa non jarriko dute?

Abenduaren 3ra arte, herriko zenbait gunetan jarriko dute karpa informatiboa, 10:00etatik 14:00etara. Txiza diluitzeko ontziak eta giltzatak ere banatuko dituzte.

- **Azaroaren 12an, 15ean eta 16an:** Atsotzako parkean.
- **Azaroaren 17tik 19ra:** Arantzazuko Ama parrokiaren ondoko plazan, Zumaburu auzoan.
- **Azaroaren 23an eta 24an:** Oztaran parkean, Parapetosa zenetik gertu.
- **Azaroaren 24tik 26ra:** Brunet parkean, kioskotik gertu.
- **Azaroaren 29an eta 30ean:** Zabaleta auzoan.
- **Abenduaren 1etik 3ra:** Euskotren geltokian.

## Herriko dendak ezagutzera emateko, Ferraren bila kanpaina jarriko dute martxan

Aterpea elkarteak 2.000 euro banatuko ditu erosketa bonutan, parte hartzen duten bezero guztien artean

## Txintxarri

Hilaren 15etik abenduaren 5era, Ferraren bila kanpaina egingo du Aterpea Merkataria, Ostalari eta Zerbitzu enpresen elkarteak. Lasarte-Oriako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin prestatu du. Aterpeko lehendakari Miguel Angel Prieto-k azaldu ditu nondik norakoak: "Altxorraren bila joko ezagunaren antzera planteatu dugun bezeroek urrezko ferra batzuk aurkitu beharko dituzte kanpainarekin bat egin duten dendetan". Jakinarazi du 51 establezimendu atxiki direla, eta horregatik, hiru multzo egingo dituztela: hilaren 15etik 21era zenbait komertzio jarriko dute urrezko ferra, eta ezkutatu egingo dute gero; hilaren 22tik 28ra



Oria Txiki tabernan aurkeztu dute kanpaina Aterpeko eta udaleko ordezkariak. TXINTXARRI

bigarren multzokoek egingo dute hori; eta hilaren 29tik abenduaren 5era, hirugarrenekoek.

## Sare sozialak

Urrezko ferrak aurkitu beharko dituzte bezeroek. Egiten badute, argazkia atera eta sare sozialetara (Facebook edo Instagram) igo beharko dute. Hori egitean, Aterpearen profila jarraitu eta bi lagun aipatu beharko dituzte. Horrez gain, parte hartzailearen

profilak irekia izan beharko du eta ez pribatua, zozketa egiten duten arte gutxienez. Aterpeak 2.000 euro banatuko ditu erosketa txartelekin.

Agustin Valdivia alkateak adierazi du "berritzailea" iruditzen zaiola kanpaina. "Helburua da herritarrek tokiko merkataritza ezagutzera eta jakitea denda bakoitza non dagoen". Gehitu du udala "beti" egongo dela "laguntzeko prest".

## Eusko Skills txapelketan parte hartu dute ULEko hiru ikasleak

Esperientzia "aberasgarria" izan dela azpimarratu dute Oier Olarra, Asier Iruretagoiena eta Oier Arroyo-k

## Txintxarri

Oier Olarra, Asier Iruretagoiena eta Oier Arroyo Automatizazioa eta Robotika Industrial zikloa egiten ari dira Usturbi Lanbide Eskola-n (ULE). Urriaren 19tik 22ra Ficoban ospatu zen Eusko Skills txapelketan parte hartu zuten. ULEko zuzendari Isidro Zaldua-ren eskertza jaso eta gero, lehiaketan bizi izan duten esperientzia "aberasgarria" kontatu dute.

Irail amaieran izan zuten txapelketaren berri, eta jokatu aurreko bi asteetan buru-belarri prestatu zuten aurkeztu beharrekoa, ikastetxean bertan: maketak, programazioak, eta abar. Iruretagoienak eta Arroyok Mekatronika kategorian lehiatu dute, eta Olarrak, Instalazio Elektrikoen modalitatean. Saririk lortu ezin izan bazuten ere, hiru ikasleak "oso gustura" daude



Parte hartu duten hiru ikasleak. ULE

txapelketan egindakoarekin. "Beste ikasle eta irakasle batzuekin ezagutzak partekatzea oso aberasgarria izan da". Onartu dute hasieran ez zutela gogo handirik, baina erronka gisa hartu zutela eta errepikatu egingo luketela, "dudarik gabe". Ikaskideei parte hartzea gomendatu diete.





Memoriaren Egunean parte hartu duten udal ordezkariak, Bizikidetzaren Taldekoak eta herritarrak, Askatasuna parkean. TXINTXARRI

# Arrosa zuri bana eskainiz oroitu dituzte

Memoriaren Egunarekin bat eginik, udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak zein bizikidetzaren foroetako lore eskaintza egin diete biktimei. Adierazpen bateratu bat irakurri du alkateak, eta taldekoek, berriz, bizikidetzaren aldeko Akordio Etikoa

## Txintxarri

Arrosa zuri bana eskuetan, Askatasuna parkean elkartu dira udaleko ordezkari politikoak, azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, biktime guztiak gogora ekartzeko. Bizikidetzaren Taldekoak ere bertaratu dira: Mari Karmen Ormazabal eta Begoña Urroz izan dira ekitaldian.

Udal korporazioak adostutako adierazpen bateratua irakurri du lehenik Agustin Valdivia alkateak. Bertan azaldu dute oroimenarekin, giza eskubideekin eta motibazio politikoko indarkeria jasan duten pertsona guztiekin duten konpromisoa adierazteko batu direla deialdira. Hala, berretsi du iraganari modu partekatuan begiratzeko eta sufrimendu guztia aitortzeko duten borondatea. Helburu hori lortzeko, Argituz elkarteak 2017an argitaratutako *Memoria partekatu baterantz* txostenarekin lanean jarraitzen dutela ere jakinarazi dute. "Horrek ez du esan nahi gertatutakoaren irakurketa egiterako orduan desadostasunak ez ditugunik edo memoriari ikuspuntu

desberdinetatik heltzen ez diogunik. Memoria kaleidoskopikoa da eta ertz asko ditu". Horregatik, gertatutako guztia mahai gainean jartzea "ezinbestekoa" dela iritzi dute: "Lasarte-Orian eman diren giza eskubideen urraketa eta sufrimendu guztiak aitortzea, eta maila lokalean behar diren bitartekoak jartzea beharrezkoa da pairatu dugun haustura soziala berreskuratzeko".

Ulertzen dute gizarte gisa aurrera egin eta etorkizunean Lasarte-Orian bizikidetzaren bermatzeko iraganaren irakurketa partekatua egin behar dutela: "Elkarri begiratu, elkarri entzunez eta elkar aitortuz. Printzipio demokratikoetan oinarrituz, pertsona erdigunean jarriz, enpatia praktikatu eta sufrimendu guztia aitortuz". Gaineratu dute, oroimenak biktime guztien aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea sustatu behar dituela.

## Eskertza herritarrei

Lasarte-Oriarrei eskerrak eman dizkiete aurtengo adierazpenaren

bitartez. Urte osoan zehar bizikidetzaren mahaitik antolatu dituzten ekintzetan izan duten konpromisoagatik eta parte-hartzeagatik zuzendu dizkiete esker hitzak: "Eskerrak eman nahi dizkiogu bizikidetzaren foroari, auzokideekin, sukaldian, giza eskubideen urraketen eta bestelako sufrimenduen biktimekin egindako lanagatik". Hitz horiei jarraiki ekarri dute gogora talde horrek antolatu duen *Bizikidetzarako Memoria* erakusketa zabalik dagoela.

Aurtengo Memoriaren Eguneko ekitaldian, Bizikidetzaren Taldeko Ormazabal eta Urrozek ere parte hartu dute. Alkateak udalaren adierazpen bateratua irakurtzeaz amaitu eta gero hartu dute hitza, eta bizikidetzaren aldeko Akordio Etikoa irakurri dute. Diskriminaziorik gabe, biktime guztientzat egia, justizia, aitortza eta erreparazioa eskatu dute.

Isilunea eta arrosen eskaintza eginez amaitu dute oroimen ekitaldia.



Alejandro Saenz eta Juan Carlos Cano, Antonio Mercero aretoari begira. GIPUZKOAKO PP

## Gordailuko bildumak herrian erakutsi ahal izatea nahi dute


Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetan helburu hori lortzeko zuzenketa bat aurkeztuko dutela iragarri du PPK

## Txintxarri

Lasarte-Oriako PPKko bozeramaile Alejandro Saenzek eskatu du herriak espazio egoki bat izan dezala Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gordailuan dauden ondasun etnografiko, artistiko eta arkeologikoak erakusteko. Gogoratu du, kultur jarduerak sustatzeko bi eraikin nagusi dituela Lasarte-Oriak: Manuel Lekuona Kultur Etxea eta Antonio Mercero aretoa, eta adierazi horietako bakar batek ere ez dituela "beharrezko baldintzak betetzen gordailuko bildumak erakusteko". Azaldu du Gordailuan dauden piezak lurraldeko udalen esku jartzeko aukera eskaintzen duela foru aldundiak, baina argitu, "zoritarrez" udal gehienek, Lasarte-Oriako kasu, ez dutela aukera hortaz baliatzeko bitartekorik. Hala, horri irtenbide eman asmoz eta osasun zein ekonomia krisian kultura gastu lehentasunetatik baztertu dela

argudiatuz, zuzenketa bat aurkeztuko dio bere alderdiak hurrengo Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuei. "Dirulaguntzen lerro bat abiaraztea nahi dugu, kultur etxeetan eta udal erakusketa aretoetan espazio itxi bat egokitzeko, gordailuak zaintzen dituen bildumak Gipuzkoako udalerrietan egon daitezten".

Bestalde herrira begira kultur etxea eta Mercero aretoa egokitzea: "Azken urteotan berrikuntza eta erreforma integrala behar dutenak, erabiltzaileek ondo dakiten bezala. Gobernu taldeak erabakitasunez egin behar du gure herriaren kultura jardueraren aldeko apustua, instalazioak berrituz, eskaintza handituz eta erakargarritasuna hobetuz. Gure aldetik, lanean jarraituko dugu eta gure lankidetzaren eskainiko dugu Lasarte-Oria garatzeko eta indartzeko".



**Jarri CONTINENTAL gurpilak eta eskuratu 80 € arteko erregai txartela**

Turismo, furgoneta edo 4x4 autoak  
2 edo 4 gurpil CONTINENTAL 17"ko uztaiak edo handiagoak jarritz gero

Gerturatu gure tailerrera!

**2car**

Zumaburu kalea 18 LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 24 63





Kastresana ahizpak, Begoña Urroz, Josu Elespe, Juanjo Castro, Manoli Urritegi eta Caty Romero izan dira protagonistak. TXINTXARRI

# Oroimena partekatu, elkarrekin bizitzeko

'Bizikidetzarako memoria' erakusketaren barruan, hainbat hitzaldi antolatu ditu bizikidetzako foroak. Indarkeriazko iraganari begiratu eta horren testigu izan diren bizipenen berri ematea da egitasmoaren xedea. Azaroaren 8an egin dute lehena

## Txintxarri

Lasarte-Oriako bizikidetzako foroak hainbat hitzaldi antolatu ditu, indarkeriazko iraganari begiratu eta horren testigu izan diren herritarren bizipenen berri emateko. *Bizikidetzarako memoria* erakusketaren barruan antolatutako jarduerak dira. Azaroaren 8an egin dute lehena: *Vidas truncadas. Víctimas del terrorismo y de actos policiales*. Zazpi protagonisten kontakizunak entzun ahal izan dituzte herritarrek, Mercero gunean.

Mentxu eta Pili Kastresana agertu dira lehenengo bideoan. 1988. urtean poliziak tiroz hil zuen Mikel Kastresanaren arreba dira, eta kontatu dute teledokumentalari bidez jakin zutela tiroketaren berri eta susmatu anaia izan zitekeela tiroz hildakoa. Kastresana ahizpentzat garrantzitsua da sufrimenduaren alde guztiak aitortzea: "Ematen du mina alde bakarrekoa izan dela, baina onartu behar da askotariko aldetakoa izan dela".

Directorio Revolucionario Iberico de Liberación (DRIL)

taldeak lehergailu bidez 1960. urtean hildako Begoña Urroz-en ahizpa Begoña Urrozena izan da bigarren testigantza. Senidearen hilketaren ondorioz etxean bizi izan duten isiltasunari egin dio azpimarra nagusia bideoan. Gertatu zena isilean gordetzea erabaki zuten gurasoek eta jarrera hark dolua bizitzeko aukerarik gabe utzi zituela uste du. Hilketaren egilea nor izan zen argitu arte gainera, ETari egotzi zitzaion hilketa eta jakinarazi du, bere gurasoak ez zutela jakin euren alaba DRILEk hil zuenik.

Josu Elesperen txanda izan da gero. Lasarte-Oriako Udaleko PSEko zinegotzi izandako Froilan Elespe-ren semea da -tiroz hil zuen ETak, 2001. urtean-. "Poza" adierazi du Lasarte-Oriako Bizikidetzako Foroa egiten ari den lanarekin eta nahi argi bat plazaratu; aitaren hilketa argitzea.

ETak tiroz hildako Jose Herrero-ren iloba Juanjo Castro agertu da laugarren ikus-entzunezkoan. Guardia Zibil erretiratu zen Herrero, 1985. urtean hil zutenean, eta hortik abiatutako bizipenak ekarri ditu

gogora senideak. "Sekulako amorrua" sentitu zuela aitortu du. Adierazpen hauek egin ditu: "Indarkeriaren aurka indarkeriaz aritzea ezinezkoa da".

"Min handiarekin" bizitu zuen Manoli Urritegi-k bere anaia Jose Javierren hilketa -ETak hil zuen 1991. urtean, Donostiako Larratxo auzoan zuen tabernan-. Kontatu du "babes eta laguntza falta nabaria" sentitu izan duela urte luzez. Uste du gizarteak biktima guztien birgizarteratzea lortu behar duela.

Caty Romero-rena izan da azken testigantza. Lau urte zeramatzan Euskal Herrian bizitzen bere senar Alfonso Morcillo hil zutenean -Donostiako udaltzaingoa zen eta 1994. urtean hil zuen ETak-. Senarra hil zutenetik urte luzez sentitu duen babes faltaz hitz egin du. Senarraren hilketarekin "betiereko bakardadera" kondenatu dutela adierazi du.

Bideoak ikusi eta gero, solasaldia egin dute. Protagonista guztiak esker oneko agertu dira Lasarte-Oriako bizikidetzako foroak emandako aukerarekin.



NEURE KABUZ  
JEXUX ARTETXE

## Memoria egunak

Elkarrekin bizitzeko, gure arteko kideztza berrindartzeko, guztiz lagungarria da oroimena partekatzea. Iraganetik behar diren irakaspenera geureganatzea, bizi dugun orainaren eta etorkizunaren orientagarri gisa. Memoriak jarraitutasun historikoa ematen dio bitarteko esperientziari. Eta kontakizun modura eratuz gero, bizi ez dituztenei transmititzeko errazago egingo zaigula deritzot. Oroimenaren bitartez, gure bizipen eta eskarmentu aipagarrienak gure balio-sisteman errotuta ikasgai ahaztezin bezala barneratuko ditugu.

Erakundeen eta ekimen herritarren eskutik, azken mende erdian pairatu dugun indarkeriaren memoria justuaren aldeko ekimenak ugaritzen ari dira, han eta hemen. Erkidegoan, asteazkenean ospatu zen aurtengo Memoria Eguna. Lasarte-Orian, aldiz, hilabete osoa emango diogu oroimena lantzeari. Erakusketa eta solasaldiak bertako testigantzetara joz, aipatu aro luzean gure herrian bizi izan duguna azaltzeko. Memoria elkarbizitzarako. Presarik gabe, baina etengabe landu behar den betekizuna da. Oker daude memoria bide lasterretik, eta ekitaldi bakar baten ondoren, errotuko dela uste dutenak. Bortxakeriaren deslegitimazioa nahi badugu, onartu behar dugu arbuio hori ongi sustraitzeko prozesuak luzaroan jarraituko duela. Denak dira oroimena lantzeko egun aproposak.

Bitartean, aste honetako ekintzek, eta azaro osoan izango direnak, etorkizuneko bidea markatzen ari diren mugarrak dira. Asteleheneko proiektio eta lekukotasun samingarriak utzitako arrastoa ezin dugu desagertzen utzi. Horrek ez du esan nahi orain biktima direnak betirako biktima izatera lotu behar ditugunik. Alderantziz, Manoli Urritegik esan bezala, biktimaren birgizarteratzea lor daiteke bere ahalegin propioari gizartearen laguntza sendoa gehitzen bazaio.

GORKA LASA | ASIER ODRIUZOLA | GORKA ALVAREZ | JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | JULEN BASTERRA | NEREA SEGURA | LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS



TXINTXARRI

## Arrapide pasealekuaren erabilera

Arrapide pasealekuan, Landaberri ikastolara doazen autobusak bestelako ibilgailuekin gurutzatzerakoan sortzen diren egoera arriskutsuak ekiditeko ezarritako trafiko arau berriak gogorarazi nahi dituzte ikastetxeko ordezkariak. Hauek dira: oinezkoek lehentasuna izango dute; eskola-garraioaren orduetan (88:15tik 9:15era; 12:15etik 15:15era eta 16:45etik 17:45era) ibilgailuek ezin dute Realaren instalakuntza aurreko bidegurutzetik Hipodromoko sarrera nagusirako noranzkoan ibili; eta ibilgailu astunek esandako norantza horretan ibiltzea erabat debekaturik dute edozein egun nahiz orduetan.



# Garaiko eta kalitatezko jakiak erosteko aukera

Hernaniko Karabeleko etxaldearen eta Lasarte-Oriako Kool Studio-ren elkarlanari esker, garaiko produktu zapoetsu eta freskoek betetako otarrak erosteko aukera izango dute lasarteoriarrek. Bi tamainatako saskien eskaintza egin dute

## Txintxarri

Astean behin, garaian garaiko eta tokian tokiko produktu ekologikoez osatutako saskiak eskuratzeko aukera izango dute lasarteoriarrek. Karabeleko-aren eskutik eta Kool Studio-rekin elkarlanean, kontsumo talde berri bat osatu dute Lasarte-Orian. Irabazi asmorik gabeko elkarte da Karabeleko, eta Hernani eta Astigarraga artean dituen lursailen bidez ekoizpen ekologikoari bultzada emateaz gain, enplegu zentro berezia ere bada. Ez baita etxalde arrunt bat; buru osasuneko arazoak dituzten pertsonentzako enplegu zentro berezia ere bada.

Karabelekok prestatutako otarra bi tamainatakoa izan daiteke, handia edo txikia, eta inguruko artisau ekoizle ekologikoez landutako produktuekin osatzeko aukera dago: "% 100 elikadura jasangarri, oso eta osasungarriaz gozatzeko aukera eskaintzen du". Txikia, pertsona batentzako litzateke eta 49 euro balio du hilabetean. Handia, berriz, bi edo hiru pertsonentzako jakiz beteta dator eta 59 euroko kostua du, hilean.

Saskiak erosten dituztenek, ostiraletan jaso ahal izango dituzte Kool Studion (Blas de Lezo, 9, behea, 1. lokala, atzealdea). Halere, hala behar

dutenek etxez etxeko banaketa zerbitzua ere izango dute eskuragai.

Otarrak nahi ez, eta eskari pertsonalizatua egin nahi dutenek ere izango dute horretarako aukera. Karabeleko aplikazioa deskargatuta, neurrira egindako eskariak egiteko aukera eskaintzen dute, baldintza bakar batekin: gutxieneko eskariak 35 eurokoa izan behar du.

Eskaintzaren gaineko informazio gehiago nahi duenak bide hauek ditu horretarako: 943-22 45 30 telefono zenbakia edota [maider@infotres.com](mailto:maider@infotres.com) helbide elektronikoa.



Otarrak erosten dituztenek, Kool Studion jasotzeko aukera izango dute. TXINTXARRI



Garaiko eta kalitatezko jaki ekologikoez prestatzen dituzte saskiak. KARABELEKO



ANTZERKIA **Bete ingoiau. Zutani Teatroa**  
azaroak 12, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

KONTZERTUA **Eneritz Furyak eta Maite Larburu**  
azaroak 13, **LARUNBATA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

BINAKAKO BAKARRIZKETA **Luze edo Motz**  
azaroak 14, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

HITZALDIA **Txerra Rodriguez. 30 urte mihigintzan**  
azaroak 15, **ASTELEHENA**, 19:00 Sutegi **DOAN**

**Sarrerak:** aldez aurretik salgai [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua!ko egoitzan.

KONTZERTUA **Ruper Ordorika**  
azaroak 19, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

DANTZA **Tio Teronen Semeak, Festamentua**  
azaroak 20, **LARUNBATA**, 19:00 Mikel Laboa plazan **DOAN**  
(Eguraldi txarra bada frontoian)

KONTZERTUA **Don Inorrez**  
azaroak 21, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**



**noaua**

**NOAUA!KO KULTURALDIA 2021**

**USURBIL  
AZAROA**







TTAKUN K.E.



# Aitortzarako eta festarako egunak

Ttakun Kultur Elkarteak 30 urte beteko ditu hilaren 16an. Egun horretan bertan eta 20an gogotik ospatuko du urtemuga berezia, erakunde zein herritarrekin. Egitarauko ekimenetako bat Sorgin Dantza izango da; prestatzeko, entseguak antolatu ditu

## Txintzarri

Hiru hamarkada ez dira egunero betetzen, eta urtemuga berezi hori ospatze aldera, Ttakun Kultur Elkarteak makina bat jarduera antolatu ditu. Horietako batzuk hilaren 16an aurrera eramango ditu, asteartean, 30 urteak beteko dituen egunean bertan: ekitaldi instituzionala egingo du Ttakunenean, 12:00etan. Herritarrekin eta erakundeetako ordezkariekin elkartu eta elkartearen ibilbide luze eta oparoari aitortza egiteko unea izango da. Ongietorria, "ikuskiuz txiki bat" eta luntxa, hortxe egitaraua. Ekitaldira bertaratu nahi duenak gonbidapena eskatu beharko dio Ttakuni.

Lau egun geroago lehertuko da festa, hilaren 20an, larunbatez. FESTtakun izena jarri dio elkarteak egun horretan egingo duen ekimen sortari: pintxo potea Jalgi kafe antzokian, Sorgin Dantza Ori auzoan eta Okendo plazan, eta kontzertua Jalgin bertan. 11:00etan, 17:30ean eta 23:00etan hasiko dira jarduerak, hurrenez hurren. Ttakuneko bazkideentzat eta Solaskide egitasmoan parte hartzen

duitenentzat doakoa izango da pintxo potea; bonua Jalgi ondoan elkarteak jarriko duen postuan eskatu beharko dute.

## Dantza prestatzeko, entseguak

Esan bezala, hilaren 20ko egitarauko jardueretako bat izango da Sorgin Dantza. 17:30ean hasiko da, eta dantzariak bi saio egingo dituzte: Ori auzoan bat, eta Okendo plazan bestea, 18:30ean. Ttakunek jakitera eman duenez, ibilbidea "modu xumeagoan" egitea erabaki du, eta horregatik, desfilerik ez dute egingo.

Sorgin Dantza prestatze aldera, hiru entsegu antolatu ditu elkarteak. Lehenengoa hilaren 11n egin dute, ostegunez, Oriarte Landaberri institutuan (Euskotren geltoki parean), 19:30etik 20:30era. Hurrengo biak hilaren 16an eta 18an izango dira, toki eta ordu berean.

**PINTXO POTEA,  
SORGIN DANTZA  
ETA KONTZERTUA  
ANTOLATU DITU  
TTAKUNEK**

## Hiru hamarkadako ibilbidea

Ttakun 1991ko azaroaren 16an jaio zen, Lasarte-Orian, bertako hainbat euskaltzalek zituzten ilusio, nahi eta asmoak gauzatzeko asmoz. Hurrengo hiru hamarkadetan ibilbide oparoa egin du elkarteak, herriko eta inguruko euskalgintzan erreferente bihurtzeraino. 30 urte hauetan asko handitu da elkarteak, eta garaia aldatu egin diren arren, helburuak berdinak dira: euskara eta euskal kultura sustatuz, hizkuntza horren normalizaziorako urratsak egitea.

Bidelagun ugarirekin batera hazi da Ttakun: herritar, elkarte, ikastetxe, euskaltegi, alderdi politiko eta erakundeekin, Lasarte-Oriako Udalarekin batez ere. Euskaltzale boluntarioek osatutako talde batek dinamizatu zuen elkarteak hasieran; gaur egun, 400 bazkide inguru ditu eta lantalde profesional batek kudeatzen du eguneroko jarduna.

Beste 30 urte (gutxienez) egiteko bidea jarraitu aurretik, orain arte egindakoari erreparatu eta, herritarrekin batera, aitortzarako zein festarako tartea hartuko du elkarteak.

**Zenbat  
dakizu  
herriko kultur  
elkarteaz?**



**HAMAR GALDERA  
TTAKUN KULTUR  
ELKARTEAZ**

**Animatzen zara?**

**Azaroaren 16tik 21era  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)  
webgunean**

**SARIA:  
JALGI KAFE ANTZOKIKO  
patata tortilla  
eder bat**



**ehbidu**  
**Bilbora!**  
MANIFESTAZIO NAZIONALA

Azaroak 20  
Bilbo · 17:30  
La Casilla

Lasarte-Oriatik autobusa antolatu dugu!  
15:30 Tajamar errotondatik  
Izena emateko zerranda: Artizar, Ilargi eta Jalgin

**EPA LASARTE HHI**



**TTAKUN K.E.  
Zorionak!**



Beko kalea bidea 1, 3 · Lasarte-Oria · [www.epalasarate.eus](http://www.epalasarate.eus)



TTAKUN K.E.



Azaroaren 16an  
TTAKUN KULTUR  
ELKARTEAREN EGUNA



## Azaroaren 20an FESTtakun!

11:00-14:00 **PINTXO POTEA** Jalgin  
Solaskide eta Ttakuneko  
bazkideentzat doan.

Arratsaldean **SORGIN DANTZA**  
Orian 17:30 eta Okendo plazan 18:30  
(desfile gabe)

23:00 **RUKULA** taldearen  
kontzertua Jalgin



Abenduaren 3an  
OPARITXOAK eta ZOZKETAK  
(Adi TXINTXARRI-ri)

Abenduaren 18an  
ESKOLA KIROLA-KO TOPAKETAK







# "Jakín badakigu katalogoan agertzen diren produktuak gehiago saltzen direla"

23 edizioko bidea jorratu du Euskarazko Produktuen Katalogoak. Lehenbizi papereko edizioan, gerora baita sarean ere. Egitasmo honek izandako bilakaera azaldu digute lerrootan sustatzaileek

## BURUNTZALDEA EUSKARA

### Zein izan zen egitasmo honen abiapuntua?

Euskarazko produktuen katalogoa lehen aldiz argitaratu genuenean euskarazko produktuak, hein handi batean, ezezagunak ziren, eta gurasoek ez zuten euskarririk Eguberrietako erosketetan euskarazko kalitatezko produktuak erosteko. Nafarroan sortu zen egitasmoa izan zen, eta ondoren hedatu zen beste lurraldeetara. Hasiara batean paperezko katalogoa zen soilik, Eguberrien bueltan banatzen zena, baina gaur egun webgunea ere bada, buletineta harpidetzeko aukera ematen duena.

### Nola egiten duzue produktuen hautaketa? Zeintzuk dira irizpideak?

Garai batean —liburuetan izan ezik eskaintza handiagoa zelako— zegoen guztia plazaratzen genuen katalogoan, betiere kalitatezkoa baldin bazen. Gaur egun, zorionez, ekoizpena askoz ere handiagoa da, eta hautaketa bi lagunek egiten dute: diskoak Badokeko arduraduna den Jon Eskisabelek egiten du eta liburuena, berriz, Migel Angel Asiain *Osio*-k, Galtzagorriko lehendakaria izan zenak, eta Haur eta Gazte Literaturan aditua denak.

### Zer hedapen du egun egitasmoak?

Urte batzuetan Euskal Herri osoan banatzen zen katalogoa, baina Iparraldean zailtasunak zituzten produktuak eskuratzeko, eta haien katalogoa egiten hasi ziren. Egun Nafarroan zein EAEn

banatzen da eta Iparraldean ez da katalogorik banatzen. Gure nahia litzateke berriz ere Iparraldean zabaltzea, egun askoz errazagoa baita produktuak eskuratzeko. Aurten 70.000 ale inguru banatu dira, eta 100 toki entitate baino gehiago dira egitasmoan parte hartu dutenak.

### 23. ediziora heldu den egitasmo mugarririk nabarmenetako bi, digitalizazioa eta eskaintzaren handitzea izan dira ezta?

Eskaintza horren handia denez, motz geratzen gara paperezko katalogoekin. Gainera, beti dira paperezko euskarria banatu eta gero plazaratzen diren produktuak. Horiek horrela, buletinak banatzen dizkiegu harpidedunei azken nobedadeen berri emateko. Hortaz, esan liteke osagarriak direla paperezko katalogoa eta webgunea.

### Zer eragin izan du katalogoak produktuon salerosketetan eta euskararen ikusgarritasunean?

Jakin badakigu katalogoan agertzen diren produktuak gehiago saltzen direla. Nolanahi ere, arazo handi bat dugu

**Aurten 70.000 ale inguru banatu dira, eta 100 toki entitate baino gehiago dira egitasmoan parte hartu dutenak**

Buletinean harpidetzeko aukera eta paperezko edizioa deskargatzeko aukera ematen du 'katalogoa.eus' webguneak.

ikusgarritasunari dagokionez: azalera handiak. Maiz saltoki horietan eskaintza urria da euskaraz, eta, gainera, ez dira oso agerian egoten diren produktuak. Liburu denda txikietan asko hobetu da egoera azkeneko urteetan alde aurretik badutelako katalogoa eta haien stocka osatu dezaketelako, eta, gainera, eskaerak gaur egun oso epe motzean jasotzen dituzte logistika gune handi bat dagoelako Euskal Herriaren erdialdean.

### Aurrera begira zer nolako bidea aurreikusten diozue katalogoari?

Urtero gure zalantza izaten da ea paperezko edizioekin jarraitu behar dugun ala ez, baina egia da familiek estimatzen dutela euskarria, baita dende

ere. Errazagoa egiten da hautaketa. Nolanahi ere, webgunea izugarriko tresna da, 8.000 produktu inguru biltzen dituena. Gure etorkizunerako erronketako bat da webgunearen berri ematea, erreferentziako toki izan dadin.

### Halako baliabideen beharra izaten segituko dugu? Zergatik?

Garai bateko arazo produktuen ezagutza falta zen, baina azkeneko urteotan eskaintza olatu batek hartzen gaitu, batik bat urte bukaeran eta Liburuaren Egunaren bueltan. Beti beharko da kalitatezko produktuak aholkatuko dizkiguna, izan digitala edo analogikoa.

**Beste ezer aipatu nahiko zenukete?** Uste dut azpimarratu behar dugula gurekin aritzen diren

enpresetako langileek egiten duten lana. Garai batean teknikariek egiten genuen dena (produktuen bila joan, hautatu, diseinatzaileari eraman eskaneatzen...) baina gaur egun ezinbestekoak dira Ttipi-ttapa fundazioko langileak, Biak inprimategikoak eta Iametzakoak.

Katalogoa mugikorren deskargatzeko





## Aisialdia euskaraz bizitzeko gida lagungarria

Ate joka dugu urte amaiera, garai ezin aproposagoa etxe askotan opariak elkarbanatzeko eta oparien bidez, aisialdi tarte ederra bizitzeko. Euskaraz bada, ezin hobeto, noski. Eremu honetan, irakurri, musika entzun, jolastu, film ederrez gozatu nahiz aplikazio anitzetan murgiltzeko parada dugu, eta euskaraz. Gure hizkuntzan zer nolako eskaintza aberatsa dugun jabetzen laguntzen digu urtero, milaka produktu eskueran jartzen dizkigun Euskarazko Produktuen Katalogoak. 23. ediziora heldu da egitasmoa, irudiz aldatuta. "Bai webguneak zein papereko edizioak, biek ere itxura berriak estreinatu dituzte". Eskuratu beharreko gida, euskara oparitu eta aisialdi tarte hizkuntza berean bizitzeko baliabideak geureganatu nahi baditugu. Milaka produkturen erreferentziak biltzen dituzte proiektu honetan batuak dauden Euskal Herriko udal eta mankomunitateetako ehun Euskara Zerbitzuko bano gehiagok.

### 70.000 ale

Katalogoaren hedapena nabarmentzeko modukoa beraz; papereko edizioa 70.000 ale banatuko dituzte asteotan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan; tartean noski, Buruntzaldeko udal zerbitzuetan edota ikastetxeetan. Ohi bezala, bi atal izango ditu sustatzaileen esanetan; 12-16 urte arteko haurren eta haien gurasoei begirakoa atala bestalde. "Musika, DVD-filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala". Adin tartearen arabera, edota aipatu produktu motaren arabera bilaketa egin daiteke katalogoan.

### Webgune bizia

Papereko edizioa online bidezkoaren erakuslehoi bat da; baina ez eskaintza osoarena, "atala antolatutako hautaketa bat baizik". Sarean aldiz, 8.000 produkturen erreferentziak aurki ditzakegu, *katalogoa.eus* helbidean hain zuzen. Webgune dinamiko da, bizia, sustatzaileen esanetan, "maiztasunez eguneratzen den webgunea da, argitaratzen diren produktu berriak sartuz, deskatalogatu direnak kenduz". Papereko edizioan bezala, eskaintza 0-12 eta 12-16 urte tartean bereizita dute. "Eta ez hori bakarrik, atal bakoitzak bere direktorioa du eta, hartara, tipologia bakoitzeko produktuen bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da produktuak tituluaren, argitaketaren, autorearen, adin-tartearen edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Azkenean, erabiltzaileak produktuen bat begiz joz gero, argitaketaren denda birtualera sartzeko manera izango du non eskuratu botoian klikatuta". Webgune bizia da aipatu moduan; berritzen doaz urtean zehar. Nobedadeen berri izan dezakegu Euskarazko Produktuen Katalogoa egitasmoa buletin elektronikora harpidetzen bagara. "Harpidedunek urtearen buruan hamar buletin jasotzen dituzte, argitaratu berri diren produktuen erreferentziekin. Izan ere, horixe baita *katalogoa.eus* atariaren helburua: merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak ere erabiltzaileen eskura modu erraz batean jartzea". Opariak egiteko egun seinalatuak ate joka ditugun honetan, aisialdirako euskarazko produktuak elkarbanatzeko gida ezin lagungarriagoa.





# Hamabi urteko ibilbide oparoari, agur

Talde teknikoa osatzeko jende falta dela eta, Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolak abenduan itxiko ditu ateak. Ibilbideari buruzko irakurketa positiboa egin dute arduradunek. 2022an, eskola txirrindulariak inguruko beste taldeetan lehiatuko dira

## Txintxarri

2008 urteko abenduan sortu zen Buruntzazpi Txirrindularitza Eskola Usurbilgo eta Lasarte-Oriako neska-mutilei txirrindularitza ibiltzeko aukera emateko asmoz. Geroztik, hamabi urte igaro dira, hamaika txirrindulari prestatu dituzte pista, errepide edo ziklo krosean lehiatzeko, maila ezberdinetako lasterketak irabazi dituzte, taldeko hainbat gazte Espainian zein nazioartean lehiatu dira eta batzuek afizionatuetara egin dute jauzia. Eskolak, ordea, ateak itxiko dituela jakitera eman digu Xabier Carbayeda Eskolako arduradunak: "Urte bukaeran bukatutzat emango dugu taldearen lana".

Eskolak ez du txirrindulari faltarik. Carbayedak azaldu du moduan, urtero maila ezberdinetako 15-18 gazte egon dira lanean taldearekin, iaz zehazki hamazazpi izan ziren.



Errepideko denboraldian ez da Buruntzazpiko maillotik izango pelotoian. UZTARRIA

Eta zikloturista talde bat ere badute, "hogei bat kidekoa".

Taldeak ez du COVID-19aren eraginik jasan. "Gazteek ez dute utzi. Gainera, kasu bakarra izan dugula esan dezakegu. Egia esan, gure kirolak nahiko erraztasun ematen ditu, aire librean da.

Judo egiten dutenek zailtasun gehiago izan dituzte".

Arazoa talde teknikoaren kide kopuruan dago. "Eskola kudeatzen jende gutxi ginen. Orain bik uzten dute eta bi lagun artean ezin dugu eskola aurrera eraman".

Ez da edonolako galera gainera, lasterketetarako kadete eta jubenil mailako zuzendaria galdu baitu taldeak. "Beraz, ez da edozein pertsona; pisudun eta tituludun pertsona bat behar genuen. Guraso batzuk laguntzeko prest agertu dira, baina postu horrek %100eko konpromisoa behar du eta zaila da horrelako pertsona bat aurkitzea", azaldu du Carbayedak.

Gainera, talde tekniko kide guztiek eskolan borondatezko lana egin dutela nabarmendu du eta euren lanak eta eskola uztartu behar izan dituztela: "Ordu asko dira saioak prestatzen, mutilekin lanean, gero bileretan federazioak, udalak... orain arte, moldatu gara. Baina egungo egoera kontuan izanik, taldea uztea erabaki dugu".

Proiektuari agur esateak pena ematen diola onartu du txirrindularitza eskolako arduradunak: "Pena handia da. Hainbeste urteetan lanean ibili eta orain ezinezkoa zaigu jarraitzea".

## Ezarrirako helburua beteta

Irakurketa positiboa egiten du txirrindularitza eskolak egindako lanaz. "Hamabi urte egin ditugu lanean. Ezarrirako helburua bete dugu. Gure mutiletako batzuk afizionatu mailan daude. Gazteak gustura ibili dira eta

emaitza politak izan ditugu", adierazi du.

Urte hauetan guztietan hainbat lasterketetan garaipenak lortu dituzte eta Gipuzkoako zein Espainiako selekzioarekin lehiatu dira gazteak. "Maila polita erakutsi dute gazteek. Orduak sartu ditugu, txiki txikitatik haiekin egon gara eta argi dago lagunduz gero, maila txukuna lortu daitekeela".

Nahiz eta txirrindularietako batzuk ziklo-kros denboraldia Buruntzazpiren izenean hasi, "abendura arte, gurekin lizentzia amaitu arte" egongo dira taldeko maillotarekin lehiatzen. 2022a, ordea, eremuko beste taldeekin batera egingo dute: "Gazteak inguruko taldeetan banatu ditugu. Gehienak Donostialdea taldean lehiatuko dira urtarrietik aurrera; batzuk, Andoain taldean; eta gutxi batzuk Zumaira joango dira. Jubeniletako azken urtea zuten batzuk afizionatu mailara ere egingo dute jauzia".

Carbayedak eskolako teknikoaren izenean eskerrak eman nahi dizkie urte hauetan guztietan eskolan ibili diren gazteei: "Beti pozgarria da horrelako adinekin lan egitea eta azkenean eurek eta gurasoek sakrifizio handia egiten dute. Orduak, ekonomikoki ere ez da kirol merkea...".

Era berean, barkamen eskaera bat egin du: "Noizbait zerbait gaizki egin badugu, barkamena eskatu, ez dago besterik".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

<b>OHOREZKO ERREGIONAL MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Eibar SAD</b> Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
<b>ERREGIONALEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Euskalduna SD</b> Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
<b>OHOREZKO JUBENIL MAILA</b>
<b>Zumaiaiko FT - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:45. Aita Mari, Zumaian.
<b>JUBENILEN 1. MAILA</b>
<b>Mundaiz SCD - Ostadar SKT A</b> Igandea. 12:30. Martutene, Donostian.
<b>Kostkas KE A - Ostadar SKT B</b> Igandea. 19:00. Matigoxotegi, Donostian.
<b>OHOREZKO KADETE MAILA</b>
<b>Lazkao KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:15. Arizti handi, Lazkaon.
<b>KADETEEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT A - Orioko FT A</b> Igandea. 15:50. Michelin kirol gunean.
<b>Usurbil FT B - Ostadar SKT B</b> Igandea. 10:00. Harane, Usurbilen.
<b>Ekintza KE - Texas Lasartearra CF</b> Igandea. 15:50. Berio-Donostian.

### OHOREZKO INFANTIL MAILA

<b>Ostadar SKT - Billabona KE</b> Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTIL TXIKI 2.FASEA</b>
<b>Idiazabal KE - Ostadar SKT</b> Igandea. 16:30. Arizkorreta, Idiazabalen.
<b>INFANTILEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT A - Urnieta KE</b> Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
<b>Usurbil Udarregi FT A - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 11:30. Harane, Usurbilen.
<b>Texas Lasartearra - Usurbil Udarregi FT B</b> Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>1. MAILA</b>
<b>Idiazabal BaiReformas - Eguzki Arkupe Rehab.</b> Ostirala. 22:30. Zelaa kirol., Idiazabalen.
<b>2. MAILA</b>
<b>Eguzki ISU Leihoak - Laskorain KE</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
<b>GAZTEEN MAILA</b>
<b>Eguzki AF 2KN - Pescados Alberto Ferreres Af Antxo</b> Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.

### SASKIBALOIA

<b>SENIOR 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Digitarte Hoops</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>SENIOR 2. MAILA</b>
<b>CD Internacional Mons - Ostadar SKT</b> Igandea. 10:00. Mons kirol., Donostian.
<b>SENIOR 3. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Askatuak</b> Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>JUNIOR ERRENDIMENDU</b>
<b>Goierrri UZ Baleike - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:15. Aldiri kir., Urretxun.
<b>KADETE ERRENDIMENDU</b>
<b>Ostadar SKT - Easo Ibaeta Basket Buruntza</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
<b>Goierrri Buenbokado - Ostadar SKT</b> Igandea. 10:45. Aldiri kir., Urretxun.
<b>INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - SaskiAxular Ulija</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - Goierri Goierribus</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

### ERRUGBIA

<b>20 URTEZ AZPIKO SELEKZIOA</b>
<b>Portugal - Espainia</b> Larunbata. 15:00. Coimbra, Portugalen.
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Gesalaga Okelan Zarautz RT - Mazabi Santander independiente R.C.</b> Igandea. 16:00. Asti, Zarautzen.
<b>EUSKAL LIGA 2. MAILA</b>
<b>Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Iruñea RC</b> Igandea. 12:00. Michelin kirol gunea.
<b>PILOTA</b>
<b>NAGUSIAK 3. MAILA</b>
<b>Intza KE - Hernani 1</b> Larunbata. 16:15 (2. partida). Michelin pil.
<b>JUBENILAK 2. MAILA</b>
<b>Añorga - Intza KE</b> Larunbata. 10:30. Añorgako pil., Donostian.
<b>KADETEAK 2. MAILA</b>
<b>Intza KE - Aloña Mendi</b> Larunbata. 16:15 (1. partida). Michelin pil.
<b>BOLEIBOLA</b>
<b>EUSKAL LIGA 2. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Galdakao BT</b> Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

### IGERIKETA

<b>ALEBIN ETA KZL JARDUNALDIA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo alebin eta benjamin mailako igerilariak Alebin eta KZL Ligako jardunaldietan parte hartuko dute.</b> Larunbata. Usabal kir., Tolosan.
<b>JUDO</b>
<b>ESPAINIAKO TXAPELKETA</b>
<b>LOKEko Asier Sagastik seniorrak Espainiako txapelketarako Iparraldeko eremuko sailkatze proba lehiatuko du.</b> Igandea. Iruñean.
<b>ATLETISMOA</b>
<b>ESKOLARTEKO JARDUNALDIA</b>
<b>Ostadar Atletismo Eskolako kideek pistako eskolarteko jardunaldia izango dute.</b> Larunbata. Antonio Elorza bel., Donostian.
<b>LASTERKETAK</b>
<b>BEHOBIA-DONOSTIA KROSA</b>
<b>56. Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko dute hainbat herritarrek.</b> Igandea. 09:45. Behobia, Iruñen.



# Egoerara moldatutako Behobia-Donostia

Herri lasterketa denboraldiari amaiera emango dio 56. Behobia-Donostiak. Osasun egoera dela eta, parte-hartzaile kopurua murriztu den arren, 134 herritar izango dira Behobiako irteeran Donostiarako hogeitazero kilometroko ibilbidea osatzeko helburuarekin

## Txintxarri

Urtebeteko etenaldiaren ostean, azaroaren 14an, igandearekin lasterketa herrikoien proba nagusia egingo da, Behobia-Donostia lasterketa Aurtengo edizioak, ordea, pandemiak eragindako moldaketa txiki batzuk izango ditu.

Horietako bat parte-hartzaile kopurua izango da, %25a murriztu behar izan du antolatzaile den Fortuna Kirol Elkarteak. Hala ere, 25.000 lasterkarik baino gehiagok izena eman dute Behobia eta Donostia arteko hogeitazero kilometroak betetzeko helburuarekin. Horien artean, 134 herritar izango dira.

Kutsatzerik egon ez dadin korrikalari guztiek musukoa derrigorrez jantzita izan beharko dute irteeran eta helmugan.

Pilaketak ekidite aldera, gainera, irteerak txandaka egingo dira. Ohiko koloreez gain, aurreko urteetako denborak kontuan izanik, taldeak osatu dira eta



2019 urtean, Behobia-Donostian parte hartu zuten herritar talde bat. ISAAC FARRE RICO

horren arabera irteera ordua zehaztu da aurtengo dortsalean.

Era honetara, ohi den modura, 09:30ean, gurpildun ahulkiko parte hartzaileek emango diote hasiera lasterketari; 9:35ean, patinatzaileen irteera izango da eta 10:00etatik aurrera, korrikalarien txanda iritsiko da.

Azkenik, kirolarien topalekua zen lasterketaren feria bertan

behera utzi dute antolatzaileek. Lasterkariak euren dortsal eta poltsa jasotzeko bi aukera izango dituzte: antolatzaileek zehaztutako dendak edo Reale Arenan ezarritako gunean.

Behobia Txikia ere egingo da aurtun; Gaztea ez, ordea. Etxeko txikiek azaroaren 13an, arratsaldeko 15:00etatik aurrera dute hitzordua Anoetako miniestadioan.

## Alex Saleta herritarrak Europako txapelketako finala jokatu du

20 urtez azpiko Espainiako selekzioak etxeko taldea, Portugal, izango du aurkari hilaren 13an

## Txintxarri

Portugal eta Espainia aurrez aurre izango dira azaroaren 13an errugbi XVeko 20 urtez azpiko Europako txapelketan. Eta bertan izango da Alex Saleta Atorrasagasti herritarra. 2019an, 18 urtez azpiko txapelketan zilarrezko domina jantzi zuen; azaroaren 13an, 20 urtez azpiko lehiaketan bigarren domina lortu du herritarrak.

Saleta eta bere taldekideek Alemania gainditu zuten final-laurdenean (47-18) eta finalerdian, berriz, Herbehereak (25-19). Bi partidetan hasierako

hamabostekoan izan da Beltzak RTko harrobiko jokalaria.

## Garaipenak

Azaroaren 7an, Espainia eta Alemaniaren neurketak txapelketari hasiera eman zion. Neurketako lehen zatia berdintsua izan zen eta 22-13 amaitu zen.

Bigarren zatia hasi eta Alemaniak partida borrokatu nahi zuela erakutsi zuen eta entsegu baten bitartez 22-18 gerturatu zen. Saleta eta bere kideek, ordea, ez zieten aukera gehiago emango. Pixkanaka jokoaren erritmoa aldatu eta euren

nagusitasuna erakutsi zuten entsegu, transformazio eta zigor-ostikoei esker.

Era horretara, azaroaren 10ean, Herbehereak izan zituzten aurkari. Finalerdi borrokatua izan zen.

Lehenengo minutuetan hiruna berdindu eta Herbehereek erasora jo zuten. Defentsan ere lan ederra egin zuen aurkariak eta errenta hartu zuen. Espainiako selekzioak zigor ostiko bat besterik ez zuen sartzerik izan atsedenaldira iritsi baino lehen (6-13).

Miki Puertas-en jokalariek, ordea, partidari itzulia ematea lortu zuten. Indarrez atera ziren eta hamahiruna berdindu zuten. Amaitzeko 10 minutu faltan entsegua lortu eta arnasa eman zion taldeari. Aurkaria saiatu arren, errenta handitzea lortu zuten 20 urtez azpiko kideek, entsegu eta transformazioarekin.



Ostadar Atletismo Eskola-ko kideak euren probak amaitzean. TXEMA VALLES

## Atletismoaren hazia ereiten

Ostadar Atletismo Eskola-ko gaztetxoak, Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza zein Haimar Zubillaga herritarra 65. Donostiako Nazioarteko Krosean lehiatu ziren, azaroaren 7an.

Atletismo Eskolako gaztetxoek lehen aldiz jantzi zituzten krosek zapatilak. Urduritasuna alde batera utzi eta 600 metroko lasterketari egin zitoten aurre benjaminek. Hipodromoko lokatsetan ederki ibili ziren lasterka eta horren erakusle, herriko taldeko kide Irai Belartietaren garaipena izan zen. Alebin mailan, Irati Gallego ere ez zen gaizki ibili; bederatzigarren igaro zuen helmuga. Kilometro bat eta 600 metroak 6.24 minutuan egin zituen.

Amaitzeko Andres eskolako prestatzaile gaztetxoek egindako lana nabarmendu du: "Txikien kasuan, meritu handia du horrelako proba batean debuta egitea. Gainera, horrelako mailetan iraupen lasterketak prestatu ez arren, Irati oso ongi moldatu da".

Era berean, gaztetxoaren guraso eta senideei eskerrak eman nahi dizkie proban eskaintako animo eta laguntzarengatik.

Ez ziren Ostadarreko kideak krosek parte hartu zuten herritar bakarrak izan. Zumeatarra taldeko kide Aimar Sukunza 20 urtez azpiko proban izan zen lehian eta bosgarren postuan iritsi zen helmugara, 19.04ko denbora egin zuen; Harkaitz Zubillaga, berriz, master mailan parte hartu zuen; 33.49 minutu behar izan zituen helmugara iristeko.

## SaskiAxular-ek hirugarren laurdenean irabazi du partida

Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Partaidetza taldeak 40-47 galdu du, hiru laurdenetan nagusi izan arren

## Txintxarri

Kadete Partaidetza mailako Ostadar SKT eta SaskiAxular-en arteko partida jokatu zen, azaroaren 6an, Maialen Chourraut kiroldegian.

Aitor Las-ek zuzendutako taldeak gogoz hasi zuen partida. Bigarren minutuan aurretik jarri zen eta aukerak ongi baliatuz, 22-15 iritsi zen atsedenaldira.

SaskiAxularrek, ordea, ez zuen amore eman eta hirugarren laurdenean partida irauli zuen. Bi jokalditan saskiratzeak lortu eta

defentsa gogorra ezarri zion etxeko taldeari. Ondorioz, urdin-beltzek ezin izan zuten saskira gerturatu eta izan zituzten aukeretan ere ez zuen zorterik izan. 4-22ko partzialarekin amaitu zen laurdena.

Ostadarreko kadeteen minutuak falta izan zitzaizkien partidaren emaitza aldatzeko. Talde urdin-beltza gogor saiatu arren, SaskiAxularrek 11 puntuko errenta ongi kudeatzen jakin zuen. Azken partziala ere etxeontzat izan zen (14-10); partidako puntuak, ordea, Donostiara joan ziren, 40-47.



# Bigarren jardunaldian ere markak ontzen

Buruntzaldea IKTKo igerilariek Neguko Ligako saioa izan dute. Hamazazpi marka hobetu dituzte. Nora Imaz, berriz, Euskal Herriko Selekzioen Arteko Txapelketan lehiatu da 400 m. eta 800 m. probetan eta bere marka onenetatik gertu ibili da

## Txintxarri

Hitzordu bikoitza izan dute berriki Buruntzaldea Igeriketa Kirol Taldeko kideek: Neguko Ligako 2. jardunaldia eta Euskal Herriko Selekzioen Arteko Txapelketa.

Azaroaren 6an, taldeko infantil, junior eta absolutu mailako 11 igerilari Hernanin izan ziren, ligako bigarren jardunaldian. Ederki lehiatu zuten, eta hamazazpi marka pertsonal ondu.

Igerilari hauek hobetu zituzten markak: Garazi Etxeberria, 50 m. tximeleta (33,71); Iker Gorostegui, 400 m. lau estiloak (5.42,84); Iker Gandia 400 m. lau estiloak (5.47,97) eta 50 m. tximeleta (34,99); Jurgi Sukunza, 50 m. bizkar (34,15), 100 m. bizkar (1.11,41) eta 100 m. lau estiloak (1.14,87); Miren Sarobe, 100 m. bular (1.31,62) eta 100 m. lau estiloak (1.19,16); Alba Escribano, 100 m. bular (1.44,40) eta 100 m. lau estiloak (1.26,50); Irati Etxeberria 200 m. libre (3.13,81), 50 m. bular (53,65) eta 100 m. bular (1.54,25) eta Mayi Gorostegui 200 m. libre (3.09,44), 50 m. bular (54,17) eta 100 m. bular (1.53,72).

## Gutxieneoak, zehazteko

Buruntzaldea IKTKo prestatzaile Borja Apeztegia-k azaldu duenez,



Ligako 2. jardunaldian parte hartu zuten Buruntzaldea IKTKo igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

lortutako marka batzuk infantil mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatzeko baliagarri izango liriteke: "Oraindik ez dira gutxieneoak zehaztu, baina bidali duten zirriborroko markak kontuan izanik, igerilarietako batzuk sailkatuko liriteke".

Iker Gorostegui, Iker Gandia eta aurreko jardunaldian parte hartu zuen Miren Sarobe izango liriteke sailkapena lortuko luketen gazteak. Gorostegui eta Gandiaren kasuan 400 m. lau estiloa proban parte hartuko lukete eta Sarobek, berriz, 20 m. lau estiloak proban.

## Gipuzkoa garaile

Azaroaren 7an, berriz, Euskal Herriko Selekzioen Arteko

Txapelketa jokatu zen, Iruñean. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako selekzioetako kideek euren onena eman zuten; Gipuzkoak eraman zuen saria.

Gure lurraldeko 29 igerilarik euren harritxo jarri zuten garaipen horretan; horien artean, Buruntzaldea igeri taldeko Nora Imaz-ek.

400 m. eta 800 m. libre probetan parte hartu zuen gazteak eta marka pertsonalik lortu ez bazuen ere, onenetik gertu aritu zen. Gainera, bietan hirugarren sailkatu zen. Proba luzeena egin zuen lehenik, eta 9.37,46 behar izan zituen proba amaitzeko; 400 metroko proba, berriz, 4.38,70 denboran egin zuen.

# LOKEko judoek, bi domina Euskadiko txapelketan

Asier Sagastik zilarrezko domina eskuratu ostean, Espainiako txapelketako sailkapen proba lehiatuko du

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko Judo sailak senior mailako Euskadiko txapelketa eta infantil zein kadeteen rankingeko lehia izan zuen azaroaren 6an, Amurrión (Araba).

Herriko kirol taldeko sei judokak lehiatu zuten zenbait kategoriatan eta senior mailan lortu zituzten emaitzarik onenak. Asier Sagasti-k eta Fermin Balda-k zilarrezko eta brontzezko zilarrak eskuratu zituzten, hurrenez hurren. Gorka Aristegi taldeko prestatzailea pozarren agertu da judoek egindako lanarekin.



Sagasti, podiumean. SAYOA JUDO KLUB

## Espainiako sektorea

Hiru borroka irabazi eta ehun kilo azpiko mailako finalera iritsi zen Asier Sagasti herritarra. Finalean, ordea, ezin izan zuen Sayoa Judo Klubeko Peio Cazorla garaitu. Espainiako Ipar Sektoreko Txapelketarako sailkatu da herritarra, lortutako bigarren postuari esker.

Hitzordua azaroaren 14an izango da, Iruñean, eta Espainiako txapelketarako txartela eskuratzea izango du helburu herritarra.

Balda, berriz, 90 kilo azpiko finaleko atarian geratu zen; hirugarren postua eskuratzeko lehiatu behar izan zen. Azken borroka irabazi eta brontzea jantzi zuen.

Maila txikitako rankingeko proban, berriz, Unai Guisado eta Mario Herrero kadeteek eta infantil mailako Iker Izquierdo eta Aitor Santos-ek parte hartu zuten. Izquierdok, Santosek eta Guisadok euren mailako bosgarren postuan amaitu zuten lehiaketa; Herrero, aldiz, zazpigarren postua lortu zuen.

# Intzako bikoteek jardunaldi garrantza izan dute

Jubenil eta kadeteek euren partidak galdu dituzte. Nagusien bikoteak lehen faseko azken partida jokatu du

## Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko bikoteek ez zuten asteburu erraza izan. Jubenilek zein kadeteek sekulako egurra jaso zuten euren partidetan: biek 22-5 galdu zuten.

Michelin kirol guneko pilotalekuan 2. Mailako Jubenilen Intza-Aloña Mendi norgehiagoka izan zen. Haritza Diaz de Gereñu eta Pedro Elozegui-k ez zuten aukerarik izan Aloña Mendiren aurka. Oñatiarrak nagusi izan ziren hasieratik.

Kadete mailan, partida zaila aurreikusitako Intzako kideek.

Hala ere, Beñat Olazabal eta Xuban Urdalleta-k LAPKeri aurre egiten saiatu ziren. Ahaleginak, ordea, ez zuten saririk izan eta merezi ez zuten emaitzarekin joan ziren etxera.

## Fase amaiera

3. Mailako Nagusien bikoteak atsedena izan zuen eta etenaldi txikia lehen faseko azken jardunaldia prestatzeko baliagarria izan dute pilotarietako. Neuketa azaroaren 13an, larunbatarekin jokatu da eta Hernani 1 izango dute aurrez aurre.

# Castrori, omenaldi hunkigarria

Ostadar SKTKo futbol saileko zuzendaritzako kide zen Patxi Castro gogoratu zuten azaroaren 6an, Michelin kirol gunean. Gorengo Mailako Ostadar SKT- Billabona KE partidaren aurretik egin zuten aintzatespen ekitaldi xumea. Aurreko neuketa amaituta, bi taldeak zelaira irten ziren korridore bat osatuz, eta tarte horretatik igaro ziren Castroren senideak erdiguneraino. Hiru dantzarik aureskua dantzatu eta Joxean Belartietak eta Joxe Pikabea-k markoan sartutako kamiseta bat eta lore sorta bat eman zitoten malkoak ezin eutsi zegoen algarunari eta Castroren semeetako bati. Bi taldeetako jokalariek argazkia egin, eta txalo artean irten ziren zelaitik.



TXINTXARRI



## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

### Internet

- [txintxarri.eus/zorionagurrak](http://txintxarri.eus/zorionagurrak).
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

### Posta elektronikoa

- Mezua bidali [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.



## Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.  
Deitu 943-37 14 48 telefonora,  
bidali haurren  
izen-abizenak eta jaiotze data  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora  
edo  
688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 12	ACHA-ORBEA	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 13	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 14	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 15	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 16	GANDARIAS-URIBE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 17	DE ORUE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
OSTEGUNA, 18	DE MIGUEL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
A. Etxebarria, "Cuevas": Andrea kalea 48, Hernani. 943-55 17 93

**URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA** eskuragarri App Store edo Android Marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## KOMIKIA



## OHARRA

### Danok Kide-ren Jaiotza Lehiaketa martxan

Eguberriak gerturatzten ari dira eta Danok Kide-k urteroko ohiturari eutsiz, jaiotzen 28. lehiaketa antolatu du. Elkarteko ordezkariak jakinarazi dute, abenduaren 17, larunbata, eta 18an, igandea jasoko dituztela lanak, egoitzan bertan (Blas de Lezo kalea, 11. zenbakia) eta 17:00etatik 19:00etarako ordutegian.

### Biyak Bat elkarteko loteria salgai

Biyak Bat elkarteak Gabonetako loteria jarri du salgai. Elkarteko zuzendaritzak jakitera eman duenez, bulegoan eskuratu daiteke astelehenetik ostiralera, 10:30etik 12:30era. Bazkideek azaroaren 30era arte izango dute elkarteko loteria erosteko.

### 1963ko kintoen bazkarian izena emateko azken eguna

1963ko kintoen afaria antolatu dute azaroaren 20an. Parte hartu nahi duenak 670 60 74 95 telefonora deitu eta ES 91 2095 5096 909121045993 kontu korrontean 40 euro sartu behar ditu.

Izena emateko azken eguna azaroaren 13a izango da, larunbata. Antolatzaileek belaunaldi horretako herritarrei parte hartzeri gonbidatzen dituzte.

### Autobusa Gasteizera abenduaren 11n

Soziedad Alkoholika, Angelus Apatrida, Anestesia eta Proud'Z taldeek kontzertua eskainiko dute abenduaren 11n, Gasteizko Iradier Arenan.

Autobusa antolatzen ari dira Lasarte-Oriatik hitzordura joango diren pertsonekin. Jalgi kafe antzokian eman behar da izena.

### Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri txintxarri aldizkarian Heriotzak atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

### Ostirala, 12




### Larunbata, 13




### Igandea, 14




### Astelehena, 15




### Asteartea, 16



### Asteazkena, 17



### Osteguna, 18



## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943-37 16 29  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84  
KIROLDEGIA: 943-37 61 82  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:  
943-37 61 81  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79  
KIUB: 943-36 16 05  
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21  
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60  
DYA: 943-46 46 22  
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53  
UDALTZAINAK: 943-36 24 42  
ERTZAINZA: 943-53 88 40  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

	1		5	8			7
		5			2		9
9		4			3		6
	6	9	2	7			
5			1		4		9
4			9			2	3
	5		6		1		2
6					7	1	
1	4			2		9	8



## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06.

#### ERRENTAN EMAN

Etxebizitza bateko logela alokatzen dut, areto amankomunak erabiltzeko eskubidearekin.

Harremanetarako zenbakia: 605 70 57 89.

#### ESKAINITZA

Herriko ile apaindegi eta estetika zentro batek manikura eta pedikura egiteko langile bat behar du. Harremanetarako zenbakia: 647 82 13 61.

### ESKARIA

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketari... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketari. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Internamodura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza

egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketari lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik.

Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Paseorako bi txirrinda sailzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. 670 20 78 14, Amaia.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466



## ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Irati Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo  
eta Aizpea Amas.

#### Banatzzaileak:

Igone Mendizabal,  
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,  
Julene Iraola, Egoitz Epelde,  
Sergio Hernandez, Ander Hazas  
eta Iñigo Garcia.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.500 ale

## BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN



**LASARTE-ORIA Azoka.** Behemendi elkarteak eta udalak VIII. Baserriko Produktuen Azoka antolatu dute asteburu honetarako. Hilaren 13an egingo dute, Okendo Plazan, 10:00etatik 14:00etara. Gisa horretako azokak, egunerokoak eta bereziak, izan dira baserriarrentzat bere etxaldean ekoiztutako produktuak saltzeko bide ezin hobea. Hala adierazi du Behemendi elkarteak, eta gaineratu sektoreak bizi duen barne krisiak eta kontsumoaren jaitsierak are garrantzitsuago bilakatu duela salmenta zuzena jorratzeko bide hauek ziurtatzea, eta herrietako giroan ere barneratzea. Sei bat postu egongo direla iragarri dute antolatzaileek. Hauek dira, besteak beste, Okendon salgai egongo diren baserriko produktuak: barazkiak, sagar barietate ezberdinak, intxaurrek, barazki eta fruitu marmeladak. Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.

## OSTIRALA 12

### LASARTE-ORIA Erakusketa

*Bizikidetzarako memoria para convivir* erakusketa ondu du Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Foroak.

Antonio Mercero gunea. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era (astearte eta ostegun goizetan, 11:30etik 13:30era ere bai), eta larunbatetan, 11:00etatik 13:30era.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Altsasu antzezlanaren oholtzaratuko du La Dramatica Errante konpainiak. Sarrerek 5,50 euro balio dute. Kultur etxea, 20:00etan.

## LARUNBATA 13

### LASARTE-ORIA Azoka

Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi elkarteak VIII. Baserriko Produktuen Azoka antolatu dute. Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.

### LASARTE-ORIA Emanaldia

Semblante Andaluz elkarteak eta Euskal Herriko Andaluziar Etxeen Elkarteak (FARAE) saioa antolatu dute: *Homenaje a Niña Pastori*.

Tabita taldeak taularatuko du ikuskizuna. Sarrera, doan. Hauxe izango da egitaraua:

**18:00etan**, agintariari eta Semblante Andaluzeko bazkideei ongietorria.

**18:15ean**, *Homenaje a Niña Pastori* emanaldia, Tabita taldearen eskutik.

**20:00etan**, otordua, bertaratu diren gonbidatuentzat.

**21:00etan**, kultur jardunaldiaren amaiera eta autobusaren irteera. Kultur etxea, 18:00etan.

## IGANDEA 14

### LASARTE-ORIA Zinema

*Bella y el circo* filma proiektatuko dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Érase una vez en Euskadi* filma proiektatuko dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

## ASTELEHENA 15

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Foroak *Giza osotasuneko eskubideari buruz* emanaldia antolatu du. Elkarrizketatu dituen biktimen

testigantzak proiektatuko ditu aurrena, eta protagonistekin beraiekin hitzaldia egin gero.

Antonio Mercero gunean, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Tailerra

Hiri hondakinak birziklatzeaz kontzientziatzeko, *Birziklatzearen erronka* kanpaina abiatu dute Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatz enpresak. Lehenengo saioa euskaraz egingo dute.

Antonio Mercero gunea, 18:30ean.

## ASTEARTEA 16

### LASARTE-ORIA Sorgin Dantza

Ttakun Kultur Elkarteak Sorgin Dantza antolatu du, 30 urte beteko dituela ospatzeko. Saioa prestatzeko, entsegu saioak egingo ditu. Parte hartzea gonbidatu ditu lasarteoriatarak.

Oriarte Landaberri institutua, 19:30etik 20:30era.

## ASTEAZKENA 17

### LASARTE-ORIA Literatura

Kontukantoi-ko lagunek istorio harrigarriak kontatuko dizkiete etxeko gazteenei. Edukiera mugatuko saioa izango da. Udal liburutegia, 18:00etan.

## ZINEMA

### USURBIL

### URBIL

### 'Eternals'

**Azaroak 12:** 15:45, 17:00, 18:15, 19:15, 20:30, 21:45.

### Azaroak 13:

15:45, 17:00, 18:15, 19:15, 20:30, 21:45.

### Azaroak 14:

15:45, 17:00, 18:15, 19:15, 20:30, 21:45.

### 'The Vault'

**Azaroak 12:** 16:20, 18:00, 19:10, 20:50, 22:00.

### Azaroak 13:

16:20, 18:00, 19:10, 20:50, 22:00.

### Azaroak 14:

16:20, 18:00, 19:10, 20:50, 22:00.

### 'Venom 2'

**Azaroak 12:** 15:45, 22:10.

### Azaroak 13:

15:45, 22:10.

### Azaroak 14:

15:45, 22:10.

### 'El último duelo'

**Azaroak 12:** 21:50.

### Azaroak 13:

21:50.

### Azaroak 14:

21:50.

### 'El lobo y el león'

**Azaroak 12:** 15:50, 18:30.

### Azaroak 13:

15:50, 18:30.

### Azaroak 14:

15:50, 18:30.

### 'La familia Addams 2'

**Azaroak 12:** 16:05.

### Azaroak 13:

16:05.

### Azaroak 14:

16:05.

### 'Halloween kills'

**Azaroak 12:** 22:45.

### Azaroak 13:

22:45.

### Azaroak 14:

22:45.

### 'Ron da error'

**Azaroak 12:** 17:05.

### Azaroak 13:

17:05.

### Azaroak 14:

17:05.

### ANDOAIN

### BASTERO

### 'Ron da error'

**Azaroak 14:** 17:00.

### 'El buen patrón'

**Azaroak 14:** 19:30.

### Azaroak 15:

19:30, 22:00.

## OSTEGUNA 18

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Santa Zezilia eguneko (hilak 22) ospakizunak aurreratuko dituzte Udala Musika Eskolako kideek.

Okendo plaza, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Sorgin Dantza

Ttakun Kultur Elkarteak Sorgin Dantza antolatu du, 30 urte beteko dituela ospatzeko. Saioa prestatzeko, entsegu saioak egingo ditu. Parte hartzea gonbidatu ditu lasarteoriatarak.

Oriarte Landaberri institutua, 19:30etik 20:30era.

## OSTIRALA 19

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Hilabeteko bigarren saioa egingo du Okendo Zinema Taldeak: *Las cosas que decimos, las cosas que hacemos* filma proiektatuko du. Kultur etxea, 20:30ean.

## LARUNBATA 20

### LASARTE-ORIA Ospakizunak

Ttakun Kultur Elkarteak hainbat jarduera antolatu ditu, 30 urte bete dituela ospatzeko. FESTtakun izena jarri dio aurrera eramango duen jarduerara sortari.

**11:00etatik 14:00etara**, pintxo potea Jalgi kafe antzokian. Ttakuneko bazkide eta Solaskide egitasmoan parte hartzen dutenentzat, doan.

**17:30ean eta 18:30ean**, Sorgin Dantza. Bi saio egingo dituzte: Oria auzoan bat, eta Okendo plazan bestea, hurrenez hurren. Desfilerik ez dute egingo.

**23:00etan**, Rukula taldearen kontzertua Jalgi kafe antzokian. Herrian zehar.

### LASARTE-ORIA Emanaldia

Zero Sette Akordeoi Orkestrak XVIII. Akordeoi Jaialdia ospatuko du. Pietro Roffi eta Banduoneando artistak gonbidatu ditu. Sarrerek 5,50 euro balio ditu. Kultur etxeko leihatilan zein sarean eros daitezke.

Kultur etxea, 19:00etan.

## IGANDEA 21

### LASARTE-ORIA Emanaldia

Santa Zezilia egunaren bezperan, Alboka abesbatzak saioa emango du. Mezan abestuko du aurrena, eta herriko zenbait gunetan gero. Arantzazuko Ama parrokia, 11:30ean.

### LASARTE-ORIA Ekitaldia

Lasarte-Oriako Hamaika Gara taldeak erreferendumaren aldeko sinadurak biltzeko ekitaldi nagusia egingo du. Herritar guztiak gonbidatu ditu parte hartzera. Kultur etxea, 12:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Dos colegas y la gran bestia* filma ikustera joateko aukera izango dute etxeko gazteenek. Sarrerek kultur etxeko leihatilan salgai daude, 3,80 eurotan.

Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Madres paralelas* filma proiektatuko dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute eta kultur etxean eskura daitezke. Kultur etxea, 19:30ean.





## BLACK FRIDAY HONETAN ESKURATU 6€-KO **URBILBONOAK** ETA GASTATU 10€

Gaurtik aurrera lortu zure UrbilBONOAK Urbileko Bezeroentzako Arreta Gunean edo 15etik aurrera [www.urbil.es](http://www.urbil.es) orrialdean.

Kontsultatu lokalak eta informazio gehiago [www.urbil.es](http://www.urbil.es) -en.



[urbil.es](http://urbil.es)

Eman Kronikari  
erremontari!

# Kronika

EREMONTE  
JAIALDIA



1.GO PARTIDUA

**ZALDUA II - ZALDUA I  
LOITEGI - MURGIENDO**

BERTSOLARIAK

**ANDONI REKONDO  
EKAIN TOLARETXIPI**

2. PARTIDUA

**GOIKOETXEA V - BARRENETXEA IV  
ANSA II - ZUBIRI**

MUSIKARIAK

**AMAIA IRAZUSTABARRENA - MIRARI JAUREGI - JOSEBA IZAGIRRE  
EIDER TOLOSA - ELAIA DIAZ BEROZ**

AZAROAK 25, OSTEGUNA · 17:00 - 20:00 · GALARRETA

SARRERAK 10€

SALMENTA-GUNEAK: HERNANI KRONIKA, TRIPONTZI,  
GARIN, EKOS, BODEGA, GALARRETA (EGUNEAN BERTAN),  
EREÑOTZU IRRINTZI, ASTIGARRAGA IKATZA, GOIZUETA  
AMAIA KAFETEGIA, URNIETA XAUXAR.

Kronika



# Maitte

# B ETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Zorionak Ttakun!

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • [www.mbetelu.com](http://www.mbetelu.com)